

AURKEZPENA

Unibertsitate-titulu ofizial berriak martxan jartzean, bai graduakoak eta baita graduondokoak ere, gure tituludunen irtenbideen eta eskaintzen dugun irakaskuntzaren inguruan hausnarketa egitea komeni da. Hori dela eta, gure aldizkari-ko erredakzio-batzordeak ale hau «Lan Harremanetako eta Giza Baliabideetako ikasketak eta lan-praktikak» gaiari eskaintzea erabaki du; 2000-2ko *Lan-Harremanak*-en ale berezian gai horren inguruan bildutako gogoetekin jarraitzeko. Gai honen inguruko gogoetak oraintsuagoko *Trabajo* laneko, Lan Harremanetako eta Lan Zientzien Unibertsitate-zentroen Estatuko Elkartearen aldizkaria den horretako, 19. alean (2007) ere agertu dira.

Luis Belausteguik diplomadunen lan harremanetako lanpostuen inguruko ikerketa egin du, elkarrizketa kualitatiboetan oinarritua, prestakuntza-beharren inguruko ideiak lortzeko zuzendua dagoena. Ideia horiek lan harremanen eta giza baliabideen graduako titulu berriak sortzeko oso interesgarriak izan daitezke.

Agustin Galan (Estatuko Erakundeko Lehendakaria) eta Elena Ramak eredu tradizionaletik ECTS eredurako aldaketaren inguruan Huelvako Unibertsitateko Lan Zientzien fakultatean aurrera eramandako esperientzia pilotua azaltzen digute. Esperientzia hau, irakaskuntzaren berrikuntza eta talde lanean iradokitua dago, metodología berriarekiko ikasleek daukaten pertzepzioaren inguruko informazio interesgarria eta irakasgai ezberdinen emaitza akademikoen bilakaera ere aurkezten digularik.

Agertzen diren artikuluetako batzuk irakasgai jakin batzuen irakaskuntzaren inguruko gogoetak dira, gehienak Goi-mailako Irakaskuntzaren Europako Esparruak planteatzen dituen arazoen inguruko iritzien ingurukoak badira ere. Horrela, Ainhoa Saitua eta Isabel Vázquez-ek kontabilitate-arloan proposamen hezitzaile bat egin dute. Mikel Urrutikoetxeak Lan Zuzenbidea eta Gizarte Segurantzaren eginkizuna aztertu du, lan-mailako eskumenen eskuratzeari egin dion ekarpena aintzat hartuta. Artikulu berean araututako lanbideen egoera aztertzen du; batez ere lan harremanetako gradudunaren lanbideari erreferentzia eginez, eta gradu berria bukatu dutenek lan harremanetako gradudun izateko ondoko kurtso edo graduondokorik egin behar izan gabe eskolatuak izan ahalko direla ondorioztatuz. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean

aurkeztutako master ofizialaren proposamenaz gero, Angel Elíasen artikulua, lan ezbeharren arazoa (bereziki Euskal Autonomia Erkidegokoa) aditzera eman ondoren, lan arriskuen prebentziorako ikerketei zuzendua dago. Multzo honetako azken artikulua Teresa Perez del Río-rena da; artikulua horretan, oinarrizko eskubidea den berdintasuna eta generoarengatik diskriminazioaren debekua bermatzeko eragile juridikoek duten sentsibilizazioa eta inplikazioak egun duen garrantzia azpimarratzen da.

Bestalde, bide batez adierazi behar da, *Lan-Harremanak*-eko Erredakzio-Batzordeak, aldizkariaren izaera monografikoa mantenduz, ale guztietan atal irekia gehitzea erabaki duela. Hortaz, gure irakurleak gonbidatuta daude aldizkariaren azken orrietan agertzen diren arauen araberrako artikulua-proposamenak bidaltzera. Ale honetan bertan, bi artikulua argitaratu ditugu atal irekian: lehenengoa Noemí Serranorena da. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko hiru zentrok (Lan Harremanen Unibertsitate Eskolak, Erizaintza Unibertsitate Eskolak eta Medikuntza eta Odontologia Fakultateak) 2008ko apirilean antolatutako Jardunaldiko txostena da, eta «Osasun zerbitzuen prestazioa erregulatzearen inguruko egungo gaiak» izena du, hain zuzen. Egileak osasun alorreko giza baliabideen eskasiaren arriskua aztertu du, baita osasun eskariekiko plantillen desegokitasunarena ere. Osasun arretako beharren aldaketa batzuek eta osasun publikoaren zerbitzura dagoen pertsonalaren xedapen erregulatuak markatutako testuinguruan, batez ere 55/2003 Legearen bitartez araututako osasun alorreko pertsonalaren Marko Estatutua.

Bigarren kapituluan, Eguzki Urteagak honako gai honi heltzen dio: lan sortzea eta Frantzia nagusi den lan-harremanen eredu baliatuz gertatutako hazkunde ekonomikoaren arteko loturari; gaurkotasanik galdu ez duen gaia bada ere, egungo ekonomia- eta finantza-krisia aintzat hartuz, indar handiagoa hartzen du. Egileak bere ustetan Frantziako hazkunde ekonomiko ahularen, eta horren ondorioz sortutako enplegu-tasa baxua eta langabeziaren igoeraren oinarrian dauden arazoak ematen ditu aditzera.

MIKEL DE LA FUENTE LAVÍN
Lan-Harremanak U.E.ren Zuzendaria
U.P.V./EHU